

Presoen eskubideen aldeko aldarrikapenak kale eta lantokietara eramango ditugu



Datozen egunotako mobilizazioetan parte hartzeko deia egin dugu sindikatutik. Ostiralean, abenduak 18, Sareren IZAN BIDEA ekimenaren barruan, 12:00etan izango diren mobilizazioetan parte hartuko du LABek Bilbon (Plaza Eliptikoa), Donostian (Alderdi Eder), Iruñean (Espainiako Gobernu ordezkaritza) eta Altsasun (Udaletxe aurrean), beste sindikatu askorekin batera. Era berean, Sarek Euskal Herrian zehar deitutako mobilizazioetan parte hartzeko deia ere egiten du LABek. Bestalde, mobilizazio propioak deituko ditu LABek, "Etxean eta bizirik nahi ditugu" lemarekin.

Gero eta zabalduago da euskal presoen eskubideen aldeko jarrera euskal jendartean. Horrela, salbuespeneko espetxe politika bertan behera utzi behar dela eskatu genuen sindikatu guztiok pasa den ostiralean Bilbon, Etixerat-ek antolatutako agerraldian. Espetxean dauden presoek jasaten duten urruntzeari amaiera emateko premia eta, oro har, espetxe politikan oraindik indarrean dagoen salbuespen egoera gainditu beharraren premia azpimarratu genituen. Honen inguruan, aldarrikapenok kalean egotea garrantzitsu ikusten du LABek, presoak etxeratze bidean jartzeko bidearen barruan.

LAB modu aktiboan mobilizatu da presoen eskubideen alde, eta orain, aktibazio soziala mantendu eta zabaltzearen garrantzia azpimarratu nahi du. Langileak kalera atera behar gara presoen eskubideen eta hauen euskal herriratzearen alde, espetxe-politika aldatzea helburu. Horrela, datozen egunotarako antolatuta dauden ekimen eta mobilizazioetan parte hartzeko deia egiten dugu.